

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Larra: 200 urteko luma modernoa

MADRIL, 1809KO MARTXOAREN 24A. Mariano Jose de Larra idazlea eta kazetaria jaio zen, Napoleonen aurkako gerra bete-betean. Lau urte zituen Fernando VII.ak Espainiako koroa jantzi zuenean eta 24, erregea hil eta oinordetza erabakitzeko liskarrak hasi zirenean. Baina Fernando VII.aren heriotzak ez zuen soilik gerra karlista piztu, espainiar kazetaritza ere piztu zuen, agintari absolutista desagertu ondoren nolabaiteko adierazpen askatasuna lortu baitzen. Eta Larrak ederki baliatu zuen aukera, *Figaro* ezizenez sinatutako artikulu politikoen bidez Espainia zaharkituari lizuna astindu eta modernizazioa aldarrikatzeko.

Ilustratua izaki, Espainiaren erronka nagusia hezkuntza eta kultura zirela nabarmendu zuen eta, horretan 98ko belaunaldi ezagunaren aurrekari eta erreferente izan zen. Bere lumaren ironia ulertzeko gai ez zen gizartea gaitzesten zuen. "Publikoak algara artean irakurtzen dituen artikuluak, Larrak idatzitakoa ulertzeko gai ez den gizarte ustel eta inozoari zuzendutako etsipenezko auhenak dira", idatzi zuen Mariano Roca de Togores lagun eta idazle garaikideak.

Amesten zuena gauzatzeko, politikan sartzea ere erabaki zuen; Avilako diputatu aukeratu zuten, baina alor horretan ere porrota izan zuen, altxamendu militar batek kargua bertan behera utzi baitzuen, erabakirik txikiena ere hartzeko aukera izan baino lehen.



Mariano Jose de Larra duela 200 urte jaio zen eta, 27 geroago, bere buruaz beste egin zuen. Fernando VII.aren heriotzak utzitako zirrikitu txikia ederki baliatu zuen Espainia ilun eta ustelean argia pizten saiatzeko. Baina, beste askok bezala, ez zuen merezitako aitortpenik izan bizi zen artean.

Bozkario bizienetik malenkonia ilunera jaisteko erraztasun handia omen zuen; gaur bipolar esango genioke horri, baina, orduan, erromantiko petoa zen Larra. Eta gainbehera politiko eta profesionala, azkenean, maitasunak bihurtu zuen amildegi.

1836ko otsailaren 13an, Dolores Armijok Madrilgo Santa Clara kaleko 3. zenbakiko atea jo zuen. Atea Mariano Jose de Larra maitaleak zabaldu zion, Filipinetako harizko alkandoraz eta lebita urdinez jantzita. Doloresek iraganean idatzitako maitasunezko gutun konprometigarriak itzultzeko eskatu zion eta Larrak berehala ulertu zuen harremana hortxe amaitu zela. Maitale ohiak alde egin zuenean, Larra ispilu aurrean paratu zen, pistola hartu, kanoia lokian ipini eta tiro egin zuen.

27 urtez bere buruaz beste egin eta mito bilakatu zen, XX. mendeko rock izarra bailitzan.

Antonio Machado poetaren hitzetan Larrak "bilatzen zuen nazioa aurkitu ez zuelako" sakatu zuen katua, "Espainiak min egiten ziolako". Heldulekurik gabe hil zen hura, helduleku bilakatu zen kazetari eta idazle belaunaldi askorentzat. Eta gaur, are gehiago krisiak jotako gizartearen, berak idatzitakoek egunerokotasun harrigarria dute. *Vuelva usted mañana* izenburuko artikulu ezaguna (www.irox.de/larra/articulo/art_vuel.html) irakurtzea besterik ez dago, duela 200 urte jaio zen kazetaria oraindik bizirik dagoela konturatzeko.

Arrastoak

Partenoiairen zati txiki bat itzuli dute



MARTHA DAHLGREN austriarraren izena Greziako egunkarietan azaldu da azken aldian, gazteak burututako keinu txiki baina eredugarriari esker. Martharen aitona Bigarren Mundu Gerran soldadu aritu zen eta gerrak, besteak beste, Greziako okupaziora eramane zuen. Beste askok bezala, oroigarri bat eramatea erabaki zuen eta Partenoiko harri puska bat hartuta itzuli zen etxera. Hildakoan Martha bilobari utzi zion altxor txikia: 30x7 zentimetroko friso zatitxoa. Bada, bilobak aitona oinordetza Greziako gobernuari itzultzea erabaki berri du. Gobernuak publikoki eskertu du austriarraren eskuzabaltasuna eta, bide batez, mendetan atzeritarrek lapurtutako ondarea berreskuratzeko ahaleginetan direla gogorarazi du. Txalogarria da herritar xume batek etekin ekonomikoari muzin egin eta ondarea dagokionari itzultzea; eta lotsagarria, gobernu eta erakunde handiek egin ez izana.